

**103/2002 FORU DEKRETUA, maiatzaren 28koa, Bizkaiko Foru Aldundikoa, PREMIE enpresa erregistroa sortu eta arautzen duena.**

### **ZIOEN AZALPENA**

PREMIE Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailaren egitaraua da, enpresa txikientzat beren-beregi prestatua eta kudeaketa hobetzeko metodologia erraz eta eraginkorra eskaintzen duena.

PREMIEren bidez, enpresaren gerentziak, enpresaren egiazko hobekuntza bilatzen duen prozesu batean aholkatzen duen begirale baten laguntza jasotzen du hurrengo helburu hauek lortzeko: bezeroen beharizanen ezaupide hobea bat, langileen parte-hartze handiagoa, enpresaren baliabide eta prozesuak optimizatzea eta, fidagarria den argibidean oinarrituta, erakuskarrien sistema erraz bat ezartzea.

Egitarau honek E.F.Q.M. (European Foundation for Quality Management) delakoak proposaturiko Erabateko Kalitaterako eredua hartu du erreferentziatzat, eta horren ondorioz, enpresa parte-hartzaileek kudeaketa gidaliburua landu behar dute.

Enpresek, PREMIE programaren ezarpen fasea amaitu eta gero, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailari eska diezaiokete PREMIE kudeaketa ereduaren ezarpen maila ebaluatzeko auditorietza egiteko.

Prozesu hori PREMIE Diploma emateak eskaintzen duen kasuan kasuko prozeduraren arabera arautzen da.

**DECRETO FORAL Nº 103/2002 de 28 de mayo, de la Diputación Foral de Bizkaia, por el que se crea y regula el registro de empresas PREMIE.**

### **EXPOSICION DE MOTIVOS.**

PREMIE es un programa del Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia, diseñado específicamente para las pequeñas empresas, que ofrece una metodología sencilla y eficaz para mejorar la gestión.

A través de PREMIE la gerencia de la empresa recibe el apoyo de una persona consultora que le asesora en un proceso que persigue la mejora real de la empresa mediante: un mejor conocimiento de las necesidades de los clientes, una mayor participación del personal, la optimización de los recursos y procesos de la empresa y el establecimiento de un sencillo sistema de indicadores que posibiliten la toma de decisiones en base a información fiable.

Este programa, que asume como referencia el modelo de Excelencia propuesto por la E.F.Q.M. (Fundación Europea para la Gestión de la Calidad), implica la realización por parte de las empresas participantes de un manual de gestión.

Opcionalmente, las empresas una vez que concluyen con la Fase de implantación del programa PREMIE pueden solicitar al Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia una auditoría para evaluar el grado de implantación del modelo de gestión PREMIE.

Este proceso que está regulado de acuerdo al correspondiente procedimiento de auditoría que posibilita la concesión del Diploma PREMIE.

Kudeaketa-eskuliburua taxutzea eta berori ahalbidetzen duten erabaki eta dinamikak abian jartzea aparteko ahalegina dira enpresa guztientzat, eta enpreson lehiakortasuna hobetzea dakar zalantza barik. Ahalegin hori behar bezala ezagutu behar da, beraz, komenigarria da PREMIE enpresa erregistroa sortzea, erregistro horretara sartzeko eta bertan mantentzeko baldintzak hedatu eta arautzeko.

Hori dela bide, Ekonomi Sustapeneko foru diputatuak proposatu eta Foru Aldundiaren Gobernu-Kontseiluak 2002ko maiatzaren 28ko bileran eztabaidatu eta onetsi ondoren, hauxe

XEDATU DUT:

### **1. artikulua: PREMIE enpresa erregistroa sortzea**

PREMIE enpresa erregistroa sortu da; izan ere, erregistro horretara Bizkaiko enpresa guztiak bildu ahal izango dira, baldin eta PREMIE programako metodologian proposatutako kudeaketa eredua hartu dutela objektiboki frogatzen badute; horretarako, beharrezkoa izango da PREMIE ezarpeneko diploma edukitzea.

### **2. artikulua: PREMIE erregistrora biltzeko baldintzak**

PREMIE enpresa erregistrora biltzeko, beharrezkoa da kudeaketa sistemaren auditoretza gainditu izana, Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailak kasuan kasu ezarritako auditoretza prozeduraren arabera.

La elaboración del manual de gestión y la adopción de las decisiones y dinámicas que lo hacen posible supone un importante esfuerzo para toda la empresa que sin duda redundará en la mejora de su competitividad. Este esfuerzo debe ser adecuadamente reconocido por lo que se hace aconsejable la creación del registro de empresas PREMIE como mecanismo de difusión y regulación de las condiciones de acceso y mantenimiento de las empresas al citado registro.

Por lo expuesto, a propuesta del Diputado Foral de Promoción Económica y previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno de esta Diputación Foral en reunión de 28 de mayo de 2002,

DISPONGO:

### **Artículo 1º: Creación del registro de empresas PREMIE**

Se crea el registro de empresas PREMIE al que podrán acceder todas aquellas empresas de Bizkaia que demuestren objetivamente que tienen asumido como modelo de gestión el propuesto en la metodología del programa PREMIE, para ello será preciso que dispongan del diploma de implantación PREMIE.

### **Artículo 2º: Requisitos para acceder al registro PREMIE**

Para acceder al registro de empresas PREMIE será preciso superar previamente la auditoría del sistema de gestión de acuerdo con lo establecido en el procedimiento de auditoría que a tal efecto establecerá en cada momento el Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia.

### **3. artikulua: PREMIE auditoretzak gauzatzeko erakunde eskuduna**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailak dekretu hau garatzeko foru aginduaren bidez zehaztuko ditu PREMIE auditoretzak gauzatzeko erakunde eskuduna edo eskudunak.

Urtez urte, erakunde horrek edo horiek auditoretzak gauzatzeko dituzten langile teknikarien zerrenda emango dio Ekonomi Sustapen Sailari. Teknikariok sakon ezagutu beharko dituzte PREMIE eta EFQM eredua, eta eskarmentua izan beharko dute Kalitate Kudeaketarako sistemetakoa auditoretzan.

Halaber, konpromisoa hartuko dute PREMIE auditoretzaren indarreko prozedurari zintzo eusteko.

### **4. artikulua: PREMIE ezarpen diploma**

Auditoretzaren emaitzak ikusita, Ekonomi Sustapen Sailak ebazpena emango du, zeinetan PREMIE ezarpen diploma emango baita.

Ebazpen horretan, PREMIE erregistro zenbakia esleitu da eta Diplomaren, eskubideen eta enpresak hartutako konpromisoen indarraldia azalduko da.

### **Artículo 3º: Entidad acreditada para realizar las auditorías PREMIE**

El Departamento de Promoción Económica determinará mediante una Orden Foral de desarrollo del presente Decreto la entidad o entidades acreditadas para la realización de las auditorías PREMIE.

Anualmente dicha entidad o entidades entregarán al Departamento de Promoción Económica la relación de personal técnico que desarrollará las auditorías. Deberá ser gente que conozca PREMIE y el modelo EFQM en profundidad y que tengan experiencia como auditores de sistemas de Gestión de Calidad.

Así mismo se comprometerán a seguir fielmente el procedimiento de auditoría PREMIE vigente en cada momento.

### **Artículo 4º: Diploma de Implantación PREMIE**

A la vista de los resultados de la auditoría el Departamento de Promoción Económica dictará una resolución en la que se conceda el Diploma de Implantación PREMIE.

En dicha resolución se asignará un número de registro PREMIE y se establecerá el periodo de validez del Diploma así como los derechos y los compromisos que adquiere la empresa durante el periodo de validez del diploma.

## **5. artikulua: PREMIE enpresa erregistrora bildutako enpresen eskubide eta betebeharrak**

PREMIE erregistrora bildutako enpresen eskubideak ondokoak dira besteak beste:

Korporazio publizitate eta irudian PREMIE logoa erabiltzea

PREMIE erregistrora biltzea, eta Bizkaiko Foru Aldundiak erregistro horren berri emango du.

PREMIE sendotze fasera sartzea

ERABERRITU programan lehentasunezko tratamendua izatea

Betebeharrak ondorengoak dira besteak beste:

PREMIE programan ezarritakoarekin bat datorren sistemari eustea.

Ekonomi Sustapen Sailak kudeaketa sistemaren ezarpen mailari buruzko jarraipena egitea erraztea.

## **6. artikulua: Idaztoarrak PREMIE erregistroan**

Erregistro horretan ondoko idaztoarrak egingo dira:

1. Enpresa edo erakundeak inskribatuko dira, baldin eta dekretu honetan ezarritakoaren arabera PREMIE kudeaketa metodologia aplikatzen dutela ziurtatzen badute.

2. Edozein aldarazpen inskribatuko da, baldin eta, enpresaren lege izaera ukitu gabe, inskripzioan kontsignatutako datuak aldatu badira.

3. Erregistroan egindako inskripzioen kitapenak inskribatuko dira.

## **Artículo 5º: Derechos y obligaciones de las empresas incluidas en el registro PREMIE**

Entre los derechos que adquieren las empresas inscritas en el registro PREMIE destacan los siguientes:

La utilización del logo PREMIE en su publicidad e imagen corporativa

La inclusión en el registro PREMIE del que la Diputación dará publicidad

El acceso a la Fase de consolidación de PREMIE

El tratamiento preferente en el programa ERABERRITU

Entre las obligaciones destacan:

Mantener el sistema de gestión en línea con lo establecido en el programa PREMIE

Facilitar al Departamento de Promoción Económica el seguimiento sobre el grado de implantación del Sistema de Gestión

## **Artículo 6º: Anotaciones en el Registro PREMIE**

En dicho registro se practicarán las siguientes anotaciones:

1. La inscripción de las empresas o organizaciones que con arreglo a lo establecido en este Decreto acrediten la aplicación de la metodología de gestión PREMIE.

2. La anotación de cualquier modificación que, sin afectar a la condición legal de empresa, suponga una alteración de los datos consignados en la inscripción.

3. Las cancelaciones de las inscripciones realizadas en el registro.

**7. artikulua: PREMIE erregistroa jendaurrekoa izango da**

PREMIE enpresa erregistroa jendaurrekoa izango da. Erregistrora bildutako datuen inguruko kontsultei erantzungo zaie.

**8. artikulua: PREMIE erregistroaren gauzatzea, eguneratzea, artxibatzea eta zaintzea**

Bizkaiko Foru Aldundiko Ekonomi Sustapen Sailak tramitatu eta ebatziko ditu erregistroan inskribatzeko eskabideak. Halaber, sail horrek erregistroa gauzatu, artxibatu, eguneratu eta zainduko du.

**9. artikulua: PREMIE erregistroko kitapenak**

PREMIE erregistroko enpresa inskripzioak ondoko zioak direla-eta kitatuko dira:

Indarraldia amaitu delako, PREMIE baldintzak betetzen direla berriro egiaztatu barik.

PREMIE diploma emateko Foru Aginduan ezarritako konpromisoak bete ez direlako diploma horren indarraldian.

Inskribatutako enpresak uko egin duelako.

Enpresaren nortasun juridikoa iraungi delako.

Artikulu honetako b) idatz-zatian azaldutako kasuan, Ekonomi Sustapen Sailak ebatziko du espedienteak, eta inskripzioaren titularrari jakinaraziko dizkio inskripzioa kitatzeko arrazoiak, titular horrek ondo iritzitako alegazioak aurkeztu ahal izateko.

**Artículo 7º: Carácter público del registro PREMIE**

El registro de empresas PREMIE tiene carácter público. Las consultas que se soliciten respecto de los datos que figuren en el mismo, serán evacuadas.

**Artículo 8º: Confección, actualización, archivo y custodia del registro PREMIE**

Corresponde al Departamento de Promoción Económica de la Diputación Foral de Bizkaia la tramitación y resolución de las solicitudes de inscripción en el registro. Asimismo, corresponde a dicho Departamento la confección, archivo, actualización y custodia del mismo.

**Artículo 9º: Cancelaciones en el registro PREMIE**

La inscripción en el registro de empresas PREMIE se cancelará por las siguientes causas:

Por finalización del periodo de validez sin volver a acreditar en nueva auditoría el mantenimiento de los requisitos PREMIE

Por incumplimiento durante el periodo de validez de los compromisos establecidos en la Orden Foral de concesión del diploma PREMIE.

Por renuncia de la empresa inscrita.

Por extinción de la personalidad jurídica de la empresa.

En el supuesto expresado en el apartado b) de este artículo, el expediente de resolución será competencia del Departamento de Promoción Económica, comunicándose al titular de la inscripción, las circunstancias que se aprecien para la cancelación de la misma, a fin de que formule las alegaciones que estime oportunas.

## **AZKEN XEDAPENAK**

Lehena. Ekonomi Sustapen Sailari dekretu hau garatzeko beharrezkotzat jo ditzan xedapen guztiak emateko ahalmena eskuetsi zaio.

Bigarrena. Foru dekretu hau bera Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Bilbon, 2002ko maiatzaren 28an.

## **DISPOSICIONES FINALES**

Primera. Se autoriza al Diputado Foral de Promoción Económica a dictar las disposiciones necesarias para el desarrollo del presente Decreto.

Segunda. El presente Decreto entrará en vigor a partir de su publicación en el "Boletín Oficial de Bizkaia".

Dado en Bilbao, a 28 de mayo de 2002.

### **EKONOMI SUSTAPENEN FORU DIPUTATUA DIPUTADO FORAL DE PROMOCION ECONOMICA**

**José Antonio Campos Granados**

**DIPUTATU NAGUSIA  
DIPUTADO GENERAL**

**Josu Bergara Etxebarria**